

## EZOHIKO EXPRESS DEIALDIAK

ARABAKO ILUSTRATZAILE bat behar da

Presazko bi proiektutarako.

Biek izango dute epaimahai profesional bat administrazioko ordezkariak aholkatzeko.

---

ARABAKO UDAKO KULTUR PROGRAMAZIORAKO CONCEPT bat eta ILUSTRAZIOAK sortu eta garatzea, eta KARTELAK MAKETATZEA.

Asmoa da kartel formako irudi orokor bat eta bi irudi edo azpi-kartel egitea programatutako ekitaldi edo jardueretako gaiak irudikatzen. Irudiak adierazi beharko du Arabako kulturaren berpizkundea Covid-19aren ondoren, programazio horretan parte hartuko duten herri guztien bitartez. Sentiarazi behar da denok jarrai dezakegula Edertasuna sortzen are pandemia baten ostean ere.

Kartelekin bat datozen lau orri maketatu beharko dira, kartelen balizko atzealdeak eta informazio orokorra ematen duten eranskinak izango direnak, non posible izango baita infografia txiki batzuk sartzea ilustratzaileari edo erakundeari egoki irudituz gero.

Expres deialdiaren epea eta hautagaien edo hautagai taldeen txostenak jasotzeko epea: ekainaren 15etik 18ra (ilustrazioaren+diseinu grafikoaren txostena bidali behar da izen-abizenekin, bi aldeetatik eskaneatutako NANarekin eta egilearen edo taldeko kideen helbide fiskalarekin, zeinak bat etorri behar baitu lana egin ondoren egingo den fakturako helbidearekin. Taldeko kide batek arabarra izan behar du).

Bidali dokumentu guztiak [info@euskalirudigileak.com](mailto:info@euskalirudigileak.com) helbidera ekainaren 18ko 23:59ak baino lehen.

Ekainaren 20an aukeratuko da hautagaia, eta egun horretan bertan emango da hautaketaren berri.

Lanak inprentara aurkezteko eguna: uztailaren 3a.

Deialdiaren baldintza ekonomikoak:

1540 € kartel nagusia + kontzeptua

700 € azpi-kartel bakoitzeko, guztira 1400 € bi azpi-kartel egiteagatik.

Hirugarren azpi-kartel bat, emanaldiei buruzko informazioa jasoko duen markoa izango dena eta pdf editagarri gisa entregatu behar dena: 530 €.

4 orriren maketazioa, 580 € (145 € infografiak / egitarauaren koadrikulak dauzkan orri bakoitzeko).

Inprentako kudeaketa: 450 €

Guztira: 4500 € garbi (zergak aparte)

---

Deialdia kartel ilustratu bat sortzeko, ARABAKO ANTZINAKO MUSIKAREN ASTEKO emanaldien liburuxkako azal gisa erabiliko dena, eta liburuxka horren maketazioa egiteko.

Baldintzak:

kartel bat sortu eta liburuxka bat diseinatu behar da, jaialdiaren irudiari estilo berri bat emanaz, baina antzinako musikaren izaera mantenduz.

Sortu beharreko materialak: Kartela, 50x70cm eta A5 neurrietara egokitua. Liburuxka: 80 orrialde A5 tamainan.

Proposatutako ordainsaria:

Kartelaren diseinua eta ilustrazioa: 1200 €.

500 € euro liburuxkaren formatua diseinatzeagatik (*font*-ak aukeratzea eta hiru koadrikula diseinatzea testua eta argazkiak horietara egokitzeko).

80 orriren maketazioa: 20 € orrialdeko: 1600 €

Inprentaren kudeaketa: 300 €.

3600 € garbi sortzailearentzat (zergak aparte eta administrazioak ordainduko ditu).

Deialdia:

ilustrazioaren eta diseinuaren txostena bidali behar da, izen-abizenekin, helbide fiskalarekin (bat etorri beharko du proiektuaren ondoren egingo den fakturako helbidearekin) eta bi aldeetatik eskaneatutako NANarekin.

Arabako ilustratzaileak diseinu eta ilustrazio talde txiki bat sortzen badu, taldeko kide guztien txostenak eta datuak sartu beharko ditu.

Taldeko kide batek gutxienez Araban jaioa izan behar du edo Araban bizi behar du.

Deialdiaren datak: ekainaren 15etik 18ra.

Txostenak pdf formatuan bidali behar dira helbide honetara:

info@euskalirudigileak.com

Ekainaren 18ko gaueko 23:59ak baino lehen.

Ekainaren 20a baino lehen jakinaraziko da nor den pertsona edo talde hautatua, eta data hori baino lehen entregatu beharko da materiala.

Bukatutako proiektua uztailaren 15a baino lehen entregatu beharko da.